

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai otsailaren 9an

Giovanni Anselmo
Ostertzaz gaindi

Giovanni Anselmo. Ostertzaz gaindi

- Data: otsailak 9–maiatzak 19, 2024
 - Komisarioa: Gloria Moure
 - Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako erakusketa
-
- Espazioa, denbora, orientazioa, eremu magnetikoak nahiz planetaren grabitazio-indarrak Giovanni Anselmoren lengoaia artistikoa definitzen duten eta haren lanean behin eta berriro agertzen diren gaiak dira.
 - Artista erakusketaren prestakuntza-lanetan erabat murgilduta ibili zen joan den abenduan hil baino egun gutxi batzuk lehenagora arte; erakustaldiak, beraz, haren bitalismo sakona, utzi duen ondarearen handitasuna eta bere ekarpenaren zentzua zintzo transmititzea du helburu.
 - Bere garaiko zenbait kezka eta hausnarketa artistikorekin bat etorri arren, eta 1960ko hamarkadaren amaieran Italian sortutako Arte Povera mugimenduaren erreferente izan arren, Giovanni Anselmok etiketa oro saihestu zuen hamarkadaz hamarkada estiloak edo joerak alde batera utzi eta corpus artistiko propioa sortuz.
 - 1965ean, Stromboli sumendiaren tontorrean, bere “itzala bera infinituan” desegin zela sentitu zuen Anselmok, eta horrela jabetu zen etengabe eraldatzen ari den unibertso baten parte garela. Esperientzia horrek bultzatuta, behatzaileekiko edo inguruan dauden indarrekiko hartu-emanen gerta daitezkeen ekintzen eta materialen bidez aurkezten zuen errealitatea.
 - Anselmok energia ikusezin eta unibertsaletera jotzen zuen ikusgaiaren eta ikusezinen arteko, eguneroko errealitatearen eta mundua baldintzatzen duten indarren arteko zubi-lana egiten duten piezak asmatzeko.

Guggenheim Bilbao Museoak *Giovanni Anselmo. Ostertzaz gaindi* aurkezten du. Giovanni Anselmoren (Borgofranco d'Ivrea, 1934–Turin, 2023) jardun artistikoaren analisi osatu bat da, ibilaldi edo bidaia baten antzera osatua, artistaren ibilbideko obrarik adierazgarrienak eta kokapen zehatzeko artelan batzuk elkarrekin lotzeko eta Anselmoren lanen eta ikusgai dauden eremu arkitektonikoaren artean sortzen den harreman nabaria azpimarratzeko asmoz.

Hemen bildutakoak 40 obra baino gehiago dira (marrazkiak, eskulturak, argazkiak, proiektzioak eta kokapen zehatzeko lanak), eta unibertsoa gidatzen duten indarren eta dinamiken izaera neurtezina bai eta inguruko energiak modu aktibo eta hautemangarrian aurkezten zituen artistaren sormen-ikuspegia goitik behera zeharkatzen dute. *Giovanni Anselmo. Ostertzaz gaindi* erakusketak artista italiarrak landutako baliabideen eta materialen aniztasuna ezagutzeko aukera ematen du, baita haren lengoaia artistikoa definitu zuten gai errepikariak ezagutzeko ere, nola diren espazioa, denbora, orientazioa, planetaren eremu magnetikoak edo grabitazio-indarrak, besteak beste.

GUGGENHEIM BILBAO

Artista joan den abenduan zendu zen, baina egun gutxi batzuk lehenagora arte erabat murgilduta egon zen erakusketaren prestakuntza-lanetan. Horregatik, inoiz baino gehiago, haren bitalismo sakona, utzi duen ondarearen handitasuna eta bere ekarpenaren zentzua zintzo transmititzea da *Giovanni Anselmo. Ostertaz gaindi* honen helburua. Bai adinez bai konbikzioz, Giovanni Anselmo 1960ko hamarkadakoen belaunaldikoa da. Garai hartan aldaketa-giroa bizi zen zirkulu artistikoetan, humanismo mota berri baten etorrera sumatzen baitzen, mende batez baino gehiagoz mendealdeko kulturen nagusitutako paradigma determinista ahitu izanak eraginda. Hala, hamarkada hartan zehar, aurrerabidearen ideia arrazionalista zalantzan jarri zuten adierazpen artistikoak agertu ziren sormena ulertzeko moduak berrikusteko eta adierazpide berriak bilatzeko asmoz. Hainbat kontzeptu —besteak beste, ezegonkortasuna, ausazkotasuna, zehaztugabetasuna, interdependentzia eta konplexutasuna— nabarmentzen hasi ziren, eta diziplina plastiko guztien oinarriak kolokan jarri zituzten. Bestetik, sortzaile-belaunaldi harentzat, ahalmen handiko tresna bihurtu zen artea: paisaia balioetsi, neurtu eta ulertzera bideratutako tresna, paisaia bera itxuratzeko ere balio zuena. Horrek esan nahi zuen kontenplazioaren ordez esperientzia erabili behar zela, obrak ezin zirela beren ingurunearekiko independentetzat hartu, eta garrantzitsuagoa zela gauzen arteko elkarrekintza haien substantzia indibiduala baino. Giovanni Anselmok sormenarekiko garatu zuen hurbilketa zutabe estetiko horien gainean sendotu zen.

Giovanni Anselmok marrazkigintzan eta olio-pinturan jardunez hasi zuen bere ibilbide artistikoa. Hala ere, 1965ean, bi teknikak baztertzea erabaki zuen Stromboli sumendiaren tontorrean bere “itzala bera infinituan” desegin zela ikusi ondoren —erakusketaren hasieran dagoen argazki famatuan dokumentatu zuen, hain zuzen ere, esperientzia hura—. Une hartan, etengabe eraldatzen ari den unibertso zabal-zabal baten parte zela jabetu zen artista. Harrezkero, baztertu egin zuen errepresentazioaren nozioa eta, horren ordez, errealtatea materialen eta sor litezkeen ekintzen bitartez aurkeztearen alde agertu zen. Esperientzia argigarri haren ondoren Anselmok eskulturaz baliatuta egin zituen lehenengo ikerketak dira erakusketaren abiapuntua. Eskultura haiek agerian utzi zuten artistaren proiektuaren funtsezko oinarria zein zen: egitura finkoaren nozioa zalantzan jartzea. *Titulurik gabea* (1966) da, besteak beste, horren erakusgarri; burdinazko barra mehe bat da, zutik mantendu arren, bibrazioak txikienarekin bere ezegonkortasuna agerian uzten duena. Era horretan, bere obrak irudi edo objektu estatiko bakar batean gauzatzea saihesten zuen artistak; horren ordez, behatzaileekin edo inguruko indarrekin etengabeko interakzioa ahalbidetzeko elkargune bihurtzen zituen. Energia bere ekintzaren beraren bidez agerian jarritz lortzen zuen Anselmok errealtatea aurkeztea.

Hasierako lan haiei esker, Anselmo *povera* artisten funtsezko erreferente izatera iritsi zen 1960ko hamarkadaren amaieran mugimendu hura Italian agertu zenean. Garai hartan, ordea, gerora etiketa oro saihestu duen ibilbide artistikoaren lehen urratsetan baino ez zen Giovanni Anselmo. Izan ere, bere garaiko zenbait kezka eta hausnarketa artistikorekin bat etorri arren, Anselmok bere corpus artistiko propioa lantzen jardun zuen hamarkadaz hamarkada, estiloak eta joerak alde batera utzita.

1960ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gauzen ordenari eta naturako fenomenoaren bilakaera ziklikoari buruzko hausnarketatik abiatuta sortu zituen bere obrak, mundu errealekiko hartu-eman zuzenean. Egileak funtsezko egoera eta erlazio fisikoei —besteak beste, masaren eta energiaren arteko baliokidetasunari edo orekaren prekarietateari— modu erraz eta poetikoan heltzeko moduan taxutzen zituen obrak, dagoeneko existitzen diren objektu eta material errealek baliatuta taxutu ere. Objektu eta material horiek anibalentzia handikoak dira: badute alde fisiko bat eta badute alde ikusezin bat ekin egiten duena, ekintzaren bitartez azaleratzen dena. Anselmok, beraz, energia ikusezin eta unibertsalak aldarrikatzen eta erabiltzen zituen, hala nola grabitatea, kosmos infinitua ulertzeko daukagun moduaren eta bakoitzak hemen eta orain bizi dugun

GUGGENHEIM BILBAO

eguneroko esperientziaren artean zubi-lana egitea xede zuten piezak asmatzeko. *Giovanni Anselmo*. *Ostertaz gaindi* erakusketak ikusgaiaren eta ikusezinaren arteko, eguneroko errealtatearen eta mundua baldintzatzen duten indarren arteko muga liluragarrian lan egiten zuen artista bat ematen digu ezagutzera .

Erakusketa honek Giovanni Anselmoren corpus artistikoan behin eta berriro agertzen diren kategoriak eta motiboak ezagutzeko aukera eskaintzen dio bisitariari, nola diren energia, espazioa, denbora, orientazioa, eremu magnetikoak edo planetaren grabitazio-indarrak. Horren erakusgarri da *Titulurik gabea* (*Jaten duen egitura*) [*Senza titolo (Struttura che mangia)*, 1968]: obrak barne hartzen duen letxuga deskonposatzerakoan granitozko blokeetako bat erortzeak energia naturalaren transformazio-moduetako bat erakusten du, eta, era berean, agerian uzten ditu grabitatearen indarra eta denboraren joana. Anselmok, gainera, beste era bateko denbora erabiltzen zuen: milaka urteko denbora, higidurak eta transformazio materialak, hau da, naturaren “desioak” eragindakoa. Antrazitaz, txapaz eta lanpara batez osatutako *Hirurehun milioi urte* (*Trecento milioni di anni*, 1969) lanean, esaterako, bere asmoa lanpararen berotasunarekin denboran atzera egitea da, harri bihurtutako materia zati hori duela hirurehun milioi urte zuen bizitzara itzul dadin.

Erakusketa osatzen duten obretako batzuk orientazioarekin lotuta daude, adibidez, *Norabidea* (*Direzione*, 1967–68). Iparrorratz bat du, triangelu formarekin moztutako granitozko bloke batean txertatua, iparraldera begira. Material zahar eta iraunkorrenetako bat den granitozko bloke hori ezkutuko energiaz eta indar ikusezinez josita dago. Eskultura ez da betetzen duen espazio fisikora mugatzen; aitzitik, iparrorratzak adierazitako eremu magnetiko eta poloetara eramaten gaitu. Beste obra batzuek, aldiz, grabitatearen indarra aztertzen dute, esaterako *Titulurik gabea* (1984–91) lanak; bertan, harrizko bi bloke orekan esekita ageri dira altzairuzko kableekin mihise baten gainean.

Erakusketa honek hizkuntzarekin poetizatzen duen artista bat ere badu aztergai. Izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, hizkuntzak funtsezko rola bete zuen Anselmoren lanean. Bere obran hainbat hitz ageri dira, tartean “partikularra”, “dena”, “ikusgaia”, “infinetua”, gainazal ezberdinetan proiektatuta: hormetan, erakustaretoko zoruan, sabaian, izkinetan, hodi batean, zokalo batean zein bisitarien euren gainean. Argi-sorta horiek gorputz material batekin topo egiten dutenean soilik hartzen dute zentzua, eta horrek adierazten digu mundua xehetasunez osatua dagoela, edo zerbait itxuraz ikusezina izan daitekeela, existitzen bada ere.

Anselmoren ikuspegiaren aberastasuna eta konplexutasuna areagotu egiten dira *Lanean barrena* (*Entrare nell'opera*, 1971) edo *Panorama eta hura erakusten duen eskua* (*Il panorama con mano che lo indica*, 1984) piezetan. Lehenengoak artistak artelanaren barruan egoteko eta leku konkretu gisa —ez objektu arrotz gisa— esperimentatzeko zuen gogoia erakusten du. Bigarrenak, berriz, zuzenean dei egiten digu, geure pertzepzioaz kontzientzia har dezagun.

Azkenik, erakusketa honetan nabarmentzekoa da *Bitartean itsasoz haraindirantz koloreak harria altxatzen du* (*Mentre verso oltremar il colore solleva la pietra*, 1995–2023) lana. Erakustaretorako propio sortua da, eta Lastur inguruko harrobi batetik erauzitako bertoko kareharriz egina dago.

GUGGENHEIM BILBAO

KATALOGOA

Erakusketarekin batera monografia bat argitaratu da. Bertan, erakusketan ikusgai jarritako lanen erreproduzioak biltzen dira, artistaren beste pieza batzuen irudiekin batera, sortzaile italiarraren jardun artistikoan barrena ibilbide erakargarri bat eskaintzeko asmoz. Erakusketaren komisario Gloria Moureren eta Gabriele Guerciorenen saiakerekin gain, Anselmok bere obrari buruz idatzitako testu adierazgarriak, bere lanaren asmoa argitzen duten sakoneko elkarrizketak, Marta Blàviak landutako biografia kritiko bat eta hautatutako bibliografia jasotzen ditu liburuak.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren baitan, erakusketa bakoitzaren osagarri gisa, Museoak aurrez aurreko eta onlineko hezkuntza-guneak diseinatzen ditu EDP Fundazioaren babesarekin, baita jarduera bereziak ere, ikusgai dauden artelanak balioesten laguntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea helburu.

Giovanni Anselmo: Ostertzez gaindi erakusketari eskainitako Didaktika bigarren solairuko korridorean dago, eta bertan jasotako objektuek Anselmok prozesu eta energia ikusezinen inguruan —grabitatea, magnetismoa eta orientazioa, esaterako— aditzera emandako kezka artistikoak ulertzen laguntzea dute xede. Esperientzia osatzeko, artistari egindako elkarrizketak erakusten dituzten ikus-entzunezkoak ere badaude.

Didaktikak, bestetik, irakurketa-gune bat du erakusketaren katalogoa kontsultatu ahal izateko.

Jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia (otsailak 7)

Gloria Moure arte-historialari, kritikari eta *Giovanni Anselmo: Ostertzez gaindi* erakusketaren komisarioak aurkeztutako hitzaldia, Giovanni Anselmori bihotz-bihotzetik omenaldi egingo diona.

Hausnarketa partekatuak*

Erakusketa berriaren edukien gaineko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzten bisitaldiak, erakustaldiarekin lotura duten Museoko profesionalek eskainiak:

- Arte-arduradunen ikuspegia (otsailak 21): Marta Blàvia, Museoko Arte-arduraduna.
- Funtsezko kontzeptuak (martxoak 6): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntzako Koordinatzailea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Sormen-saioa (martxoak 14)

Bitxien diseinuari buruzko hastapen-tailerra, testura eta material naturalak lantzeko eta forma organikoetan enfasia jartzeko helburua duena, bitxigintzan eta zeramikan espezializatutako Maitena Ganboa artistaren eskutik.

Ibilbidea... (martxoak 15)

Erakusketa beste ikuspegi batetik deskubritzeko aukera paregabea, oraingo honetan Alex Txikon kirolari ospetsuak lagunduta. Eliteko mendizaleak naturarekin duen lotura bereziak berebiziko energia sortuko du bisitaldian zehar komentatzeko.

GUGGENHEIM BILBAO

Performancea (apirilak 13)

Joan Catalák bere *Pelat* pieza mitikoa aurkeztuko du, Museoko Atrioan sortutako indarrekin eta gorputzaren, grabitatearen, tentsioaren eta orekaren funtsezko elementuekin konektatuz. Bere lanetako asko ikuslearen beraren gorputzaren fisikotasunetik elikatzen dira, energiaren hartzaile eta sortzaile den aldetik. Hala, oraingoan, Giovanni Anselmoren erakusketa bisitatzen duen publikoak izango du pieza horretan parte hartzeko aukera.

Azalaren irudia:

Norabidea (Direzione), 1967–68

Xehetasuna. Harria eta orratz magnetikoa

16 × 220 × 101 cm.

Centre Pompidou, Paris.

Musée national d'art moderne / Centre de création industrielle,

Erosketa, 1983.

Argazkia: © Centre Pompidou, MNAM – CCI, Dist. RMN-Grand Palais / image Centre Pompidou

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus/eu (Prentsa-eremua).

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsa irudiak

Giovanni Anselmo. Ostertzaz gaindi

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudi-zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratzeko aukera duzue, bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

- Emandako irudiak *Giovanni Anselmo. Ostertzaz gaindi artea* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2024ko otsailaren 9tik maiatzak 19ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoen egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin zaizkio hirugarren bati transferitu, ezta datu-base batera eraman ere.
- Irudiak azaletarako erabiltzeak kostua izan dezake, eta aldez aurretiko baimena eskatu beharko zaie obraren jabeari eta copyrightaren titularrari.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan, edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Giovanni Anselmo

Titulurik gabea, 1967

Formika beltza, ura eta zura

160 x 60 x 60 cm

The Rachofsky Collection, Dallas

© Giovanni Anselmo

Foto: Kevin Todora



Giovanni Anselmo

Norabidea (Direzione), 1967-68

Harria eta orratz magnetikoa

16 x 220 x 101 cm

Centre Pompidou, París.

Musée national d'art moderne / Centre de création industrielle.

Erosketa, 1983



GUGGENHEIM BILBAO

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Centre Pompidou, MNAM – CCI, Dist. RMN-Grand Palais / image Centre Pompidou

Giovanni Anselmo

Norabidea (Direzione), 1967–68

Oihala, beira eta metala

24,3 x 420 x 335 cm

Tate, Londres. Emaile anonimo batek emandako funtsekin eresia, 2009

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Tate Images



Giovanni Anselmo

Titulurik gabea (Kotoi bustia beiraren kontra jaurti eta bertan geratzen da) [*Senza titolo (Il cotone bagnato viene buttato sul vetro e ci resta)*], 1968

Beira, kotoia, zakua, zink-baldea, ura eta zerrautsa

210 x 210 x 50 cm

The Sonnabend Homem Collection. Préstamo a la Fundação de Serralves – Museu de Arte Contemporânea de Serralves, Oporto

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Filipe Braga



Giovanni Anselmo

Tortsioa (Torsione), 1968

Burdina eta oihala

160 x 160 cm

GAM – Galleria Civica d'Arte Moderna e Contemporanea, Fondazione Guido et Ettore De Fornaris, Turín

© Giovanni Anselmo

Argazkia: Cortesía de Fondazione Torino Musei, 2008

© Studio Argazkiografico Gonella



Giovanni Anselmo

Titulurik gabea, 1968

Harriak eta kablea

2 elementu, 21,5 x 63 x 41,5 cm aprox.

Bilduma pribatua / Kunstmuseum Liechtenstein, Vaduz

© Giovanni Anselmo

Foto: © Stefan Altenburger



GUGGENHEIM BILBAO

Giovanni Anselmo

Titulurik gabea (Jaten duen egitura) [*Senza titolo (Scultura che mangia)*], 1968

Granitoa, kobrea eta letxuga

62 x 25 x 25 cm

Citadellarte - Fondazione Pistoletto, Biella

© Giovanni Anselmo



Giovanni Anselmo

Titulurik gabea (Edaten duen egitura) [*Senza titolo (Struttura che beve)*], 1968

Altzairu herdoilgaitza, ura eta kotoia

54 x 30 x 30 cm

Bilduma: Carine Szwajcer, Amberes

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Paolo Mussat Sartor



Giovanni Anselmo

Interferentzia unibertsoaren grabitazioan (*Interferenza nella gravitazione universale*), 1969–2016

Inpresioa mihise emulsionatu gainean

20 argazki mihise gainean, artistak eguzki-sartzerantz hurbildu ahala, hogei urratsez behin atereak, 30 x 30 cm bakiotza

Castello di Rivoli Museo d'Arte Contemporanea, Rivoli-Torino, honen mailegua: Fondazione per l'Arte Moderna e Contemporanea CRT

© Giovanni Anselmo



Giovanni Anselmo

Eskuineko alde (*Lato destro*), 1970

Koloretako argazkia

33,5 x 26,5 cm

Bilduma pribatua, Turin

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Paolo Mussat Sartor



Giovanni Anselmo

Infinitua (*Infinito*), 1970

Idazkuna berun gainean

70 x 50 cm

Artistaren bilduma, Turin

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Paolo Mussat Sartor



GUGGENHEIM BILBAO

Giovanni Anselmo

Lanean barrena (Entrare ne'll opera), 1971

Argazki-inprimaketa, mihise gainean

267 x 391 cm

Mart, Museo di arte moderna e contemporanea di Trento e Rovereto.

Bilduma pribatua

© Giovanni Anselmo

Argazkia: Mart – Archivio Argazkiografico e Mediateca



Giovanni Anselmo

Xehetasuna (Particolare), 1972–74

Proiektorea

Neurri aldakorrak

Artistaren bilduma, Turin

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Paolo Mussat Sartor



Giovanni Anselmo

Panorama eta hura erakusten duen eskua (Il panorama con mano che lo indica), 1982–84

Grafitoa paper oihalezatu gainean eta harria

Neurri aldakorrak

Colección CGAC, Santiago de Compostela

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Manu Suárez



Giovanni Anselmo

Titulurik gabea (Itsasoz haraindirantz) [Senza titolo (Verso oltremare)], 1982–89

Harriak, mihiseak eta horma-pintura

330 x 170 x 525 cm

Patrimonio Artístico Fundación “la Caixa”

© Giovanni Anselmo



Giovanni Anselmo

Itsasoz haraindirantz (Verso oltremare), 1984

Harria, altzairuzko kablea, soka lasterra eta pintura akrilikoa horma gainean

300 x 140 x 3 cm

Artistaren bilduma, Turin

© Giovanni Anselmo

Argazkia: © Paolo Mussat Sartor

